



MASTER AMAIERAKO LANA
FRANKISMOAREN ERAGINA EMAKUMEAREN EGUNGO
GIZARTE ROL-EAN
2018/2019 IKASTURTEA



Ane Lapieza Olano-72525311D

Zuzendaria: Josu Chueca Intxusta

Giza eta Gizarte Zientziak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako irakasleen prestakuntza unibertsitate masterra

AURKIBIDEA

1. LABURPENA.....	3
2. SARRERA.....	5
3. GAIAREN EGUNGO EGOERA ETA OINARRI TEORIKOAK.....	7
4. ESKU HARTZE DIDAKTIKOAREN PROPOSAMENA.....	13
4.1. Proposamenaren helburuen eta erreferentziazko curriculum dokumentuen arteko egokitzapena eta erlazioa.....	13
4.2. Deskribapena.....	19
5. ONDORIOAK.....	34
6. BIBLIOGRAFIA.....	37
7. ERANSKINAK.....	39

1. LABURPENA

Historiako jakintza arloari loturiko ezagutzak eskoletan helarazteko orduan, emakumeen paperaren lehenestea ez da ohikoa. Gerra zibilaren amaiera eta frankismoaren hastapenei dagozkien edukietan zentratuz, Espainia mailan pairatu ziren ondorio nagusien azterketa jorratzen denean, alderdi politikoa baino ez da lantzen. Erregimen frankistak gizartea egituratzeko martxan jarritako politikari erreparatuz ordea, autoritarismoa zein patriarkatua osagarri nagusi izanik, jardueren eta eguneroko betebeharren bereizketa zorrotza inposatu zuen. Horrekin batera, emakume espainiarraren eredu ideala zabaldu zuen, Estatuarentzat baliagarri zein eredugarri izateko, emakume orok erakutsi beharreko gizonarekiko menpekotasunean, humiltasunean eta apaltasunean oinarrituriko jarrera zorrozki definituz. Jardueren zehaztapenaren inguruan, emakume baten ardura etxeko esparrura mugatuko zen, ezkondu, familia barneko ongizatea mantendu eta etxeko jardueren kudeaketa helmuga nagusi eta bakar gisa edukiz. Eskubideei dagokionez, emakumeei haien buruaren jabe izateko askatasuna ukatu zitzaizkien, egunerokotasunean zehar erabakiak hartzerako orduan aurrez aita edota senarraren beharra gailenduz. Lan honen bitartez beraz, ikasleengan gertuko iraganean emakumeek erregimen frankistaren aldetik pairatutako ondorio bortitzenen inguruko kontzientzia garatuko litzateke.

Bestetik, gaur egungo gizartea sakonki ezagutu eta ikuspuntu kritiko batetik aztertzeke gaitasuna lantzeraz begira, gertuko iraganaren inguruko ezagutzen erabileraren sustapena gailenduko da. Frankismoak definitzen zuen emakume eredu idealaren paperarekin alderatuz, gaur egungo gizartea erabateko genero berdintasunean oinarritzen dela pentsatu ohi da. Ogibide bati dagozkion barne kategorien esleipenari edota etxeko jardueren banaketari loturiko zenbait aspektu ordea, ez dute eraldaketa nabarmenik jasan trantsizio garaitik. Beraz, proiektu berritzaile hau praktikan jarritz, gaur egungo errealitatearen baitan erregimen frankistak bereizgarri zituen oinarri ideologikoen presentziaren azterketa jorratuko litzateke, baita egungo nerabeen pentsamenduarengan izandako eragina ere. Hala, gertuko iraganaren eta orainaldiaren arteko elkarlotura eginez, frankismo garaian leku hartu zuen emakumearen berezko eskubide ugariren zapalkuntzarekiko kontzientziazioa garatuko da, egungo gizarte egitura sakonki ezagutu eta hobekuntza sustatzeko bere jatorria kritikoki aztertzeraz begira.

HITZ GAKOAK: Emakumea, frankismoa, egungotasuna, ezberdintasuna, hezkuntza, kontzientziazioa, gertukotasuna, etorkizuna.

ABSTRACT

When we try to transmit some basic knowledges related to History at school, we don't use to prevail women's history at all. With respect to the lessons related to the Spanish Civil War, the first years of Francoism and the most important's consequences they lead to, we still continue to prevail just the political area. However, if we focus attention on some political measures put in practice by the Francoism in order to restore the society, taking into account that patriarchy and authoritarianism were some of the most essential's characteristic's, franquist regime imposed a division of labours, always depending on the gender. At the same time, an example of the perfect Spanish woman was created and expanded in the society, giving an exact definition about the behaviour that any woman was supposed to have in order to be useful for the State, based in the humility, simplicity and subjection with respect to men. In regards to the distribution of labours, women were just authorised to work at home, while getting married, creating her own family and managing houseworks were their main responsibilities. Making reference to women's rights, every woman was deprived of their right of being independent, thriving their father's or husband's consent at the time of making any decision. Therefore, the main objective of this project, would be to raise awareness within the students, in order to letting them know about the worst consequences of Francoism's imposition suffered by every woman.

Furthermore, in order to fully know our society and analyse it through a critical point of view, the knowledge related to the near past will be used. Comparing with Francoism, we use to think that nowadays society is based on the absolute gender equality. However, taking into account the unbalanced distribution of houseworks and the categorization inside so many jobs and positions, always depending of the gender, the improvement hasn't been appreciable from the Spanish Transition to Democracy. For that reason, putting into practice this innovative project, the presence of the franquist ideology inside nowadays society will be studied and identified, as well as the influence on teenager's thought. In this way, comparing the present and the past, the awareness about the oppression of many women's rights during the Francoist era would be developed, so that students will be able to make correct decisions in order to continue improving our society.

2. SARRERA

Hurrengo lan honek hezkuntza arloan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan zein Batxilergoan zentratuz, historiako jakintza arloak eskaintzen dituen ezagutzak egungo errealitatearen azterketara bideratu eta modu praktikoa batean barneratzeko proposamen berritzaile bat sortzea du helburu. Eduki historikoaren barnean jorratuko litzatekeen gaiari dagokionez, gaur egungo gizarteak emakumeari esleitzen dion rolaren azterketan oinarrituko litzateke, betiere erregimen frankistak helarazi zuen emakume idealaren irudiarekiko alderaketa burutuz. Azken hamarkadetan zehar, trantsizio garaia abiapuntu gisa hartuta, emakumeek frankismoak ukatu zizkien oinarrizko zenbait eskubide berreskuratzeko emandako aurrera pausuak nabariak izan dira, genero berdintasunean oinarrituriko legedia indarrean jarri ostean. Aipaturiko oinarrizko eskubide hauetako batzuen artean, heziketa jasotzeko edota lan munduan langile aktibo gisa eta independeteki onartua izateko eskubideak gailentzen dira.

Erregimen frankistak sorturiko gizarte ereduaren ikuspegi kritikoa oinarrituriko azterketa historiko bat burutzen denean, espainiar emakume idealaren papera definitzen zuten oinarri ideologikoekin alderatuz, gaur egungo gizartea erabateko berdintasunean oinarritzen dela pentsa daiteke. Hala ere, egungo gizarte talde edota sektore ekonomikoen baitako barne aspektuei sakonki erreparatuz, sexuaren araberako rol eta jardura banaketak funtsezko izaten jarraitzen duela antzeman daiteke. Esaterako, gizon zein emakumeak ingeniari izan badaitezke ere, gizonetzkoaren soldatak emakumezkoarenak baino altuagoa izaten jarraitzen du, lan baldintza beretan lan eginda ere. Bestetik, lanean zehar sakonduko den moduan, Estatu mailan emakumezkoen ehuneko altu batek etxe barneko esparruari loturiko jardueren ardura osoa hartzen du. Beraz, emakumeari gizonarekin alderatuz esleitzen zitzaion gizarte mailako onarpen urria Estatu frankistak berezko zuen ezaugarri bat dela kontuan hartuz, gaur egungo gizarteak erregimenarengandik oinordetzan zenbait oinarri ideologiko jaso eta mantendu dituela pentsa daiteke, kontzientzia maila erabatekoa ez bada ere.

Lan honek irakaskuntzarekiko duen loturari dagokionez, helburu nagusia ikasleek historiari loturiko jakintzak, etorkizunean egungo gizartea sakonki ezagutu eta eraldatzeko modu praktikoa barneratzea litzateke. Aldi berean, azken urteetara arte eduki historikoak helarazteko erabili den testuliburuaren irakurketa hutsean oinarrituriko metodologia zalantzan jarriko litzateke. Hala, ikasleei testuinguruan

egokitasunez kokatu eta iragana eta orainaldiaren arteko lotura zuzena burutuz edukiak praktikotasunez barneratzeko aukera ukatzen baitzaie.

Proposamen didaktiko honen bitartez beraz, gaur egungo gizarte egitura zein errealtatea bere osotasunean ezagutzeko, gertuko zein urruneko iragana ikuspuntu kritiko batetik eta alderaketa bat burutuz aztertzeke gaitasuna garatu nahi da ikasleengan. Bestalde, kontzientziario ariketa bat praktikan jartzea du helburu, jarrera enpatikoaren lanketa bultzatuz, inguruko sentimenduak identifikatu eta ulertzen jakitera begira.

Azken hamarkadetara arte hezkuntza mailan gerra zibilaren amaieraren eta Estatu mailan pairatu ziren ondorio nagusien inguruan helarazi diren edukien inguruan, gerra zibila bi bandoren arteko guda moduan ikusi ohi izan da. Ikuspuntu politiko hutsetik aztertuz, 1939. urtean, alderdi nazionalaren garaipenak erregimen frankistaren inposaketa ekarri zuen, alderdi politiko bakar gisa. Galtzaile nagusi moduan aldir, alderdi errepublikarra hartu ohi da zentzu orokorrean. Erregimen frankista ordea Estatu patriarkal zein autoritario batean oinarritzen dela kontuan hartuta, ideologia politikotik at, emakumeak izan ziren haien gizarte mailako onarpenaren zein eskubide berdintasunaren zapalketa pairatu zutenak. Emakumeek jasandako sufrimendua ordea, agerikoa eta ezkutukoa da aldi berean hezkuntza arloan, gertakari historikoak azaleko ikuspuntu politikoa ardatz gisa hartuz aztertzen baitira, muturreko bertsio, teoria eta ikuspuntu anitzak badirela aintzat hartu gabe.

Hortaz, emakumeen gizarte mailako garrantziaren deuseztapena erregimen frankistaren ezaugarri esanguratsuenetako bat dela gailendu nahi da lan honen bidez. Horretaz gain, ahozko testigantzen zein gertuko senideen bizipenaren azterketaren bitartez, ikasleengan gertuko iraganean emakumezkoek pairatutako gerraosteko ondorio lantzen inguruko jarrera kritikoa, kontzientziarioa eta enpatia maila garatuko dira. Aipatu bezala ordea, proposamen didaktiko hau ez da gertuko iraganaren analisi kritiko hutsean oinarritzen. Egungo gizartea hobetzera begira, iragan eta orainaldiaren arteko konparaketa bat burutuz, frankismoa ezaugarritzen duten oinarri ideologiko ugari errealtatearen zati direla ohartarazi nahi dira ikasleak. Horretaz gain, haietako bakoitzarengan jatorri frankista luketen emakumeari zuzenduriko bereizkerian eta kontsiderazio eskasian oinarrituriko mezuek duten eraginaren azterketa emango da, ideia hauek identifikatu eta iraganeko akatsak ekiditeko neurri zein erabakiak hartzen jakitera begira. Zentzu orokorrean, historiako irakasgaiaren egunerokotasuneko erabilera praktikoa sustatu nahiko da ikasleengan.

Lanaren egituraketa eta atal nagusiei dagokienez, aurrez eskaini den sarrerarekin hasiz, aztergai den edukiaren inguruko egungo egoera eta oinarritzapen teorikoa

landuko da, zenbait autore eta adituk azken urteetan zehar burututako ikerketak aztertzeraz begira. Alde batetik, erregimen frankistak emakumeari gizarte mailan esleitzen zion lekuaren ingurko ikerketak aurkeztuko dira eta bestetik gaur egungo genero bereizkeriaren presentziari loturikoak, hau da, trantsizio garaitik eraldaketa bortizik jasan ez duen zenbait ogibideren edota etxeko esparruaren baitako jardueren banaketari buruzkoak.

Jarraian, proposamen didaktiko berritzailea osatzen duten jardueren deskribapen zehatza eskainiko da, saio kopurua, haietako bakoitzean jorratuko den gaia, materialak, metodologia, denbora tartea, eta ebaluazio irizpideetan zentratuz. Lanari, ondorio orokor batzuekin emango zaio amaiera, emakumearen gizartearen baitako onarpen zein gizonarekiko berdintasun mailari dagokion gertuko iragan historikoaren eta egungotasunaren arteko alderaketari loturik. Hezkuntza arloari dagokionez, emakumeen autonomiari dagozkien eskubieen galera sustatzen duen ideologiaren garapena ekiditeko prebentzio neurriak loturikoak izango dira. Bukatzeko, lanaren osagarri gisa erabilitako liburu eta artikulatuak, jarduerak osatzeko erabilitako materiala eta eranskinak zerrendatuko dira.

3. GAIAREN EGUNGO EGOERA ETA OINARRIZTAPEN TEORIKOAK

Emakumea: espainiar gerra zibileko galtzaile ezezaguna

Estatu diktatoriala oinarritzen zuten egitura politikoak zein ideologiak autoritatea zuten osagarri nagusi gisa, aldi berean, gizarte egitura guztiz hierarkizatu bat inposatuz. Autoritatearen inposaketak, menpekotasunean oinarrituriko gizarte baten eraketa zekarren, gizarte erabat patriarkal baten loraldia sustatuz. Beraz, emakumea bihurtuko zen erregimenaren politika zein eredu sozial eta ekonomikoa mantentzeko giltza. Gizarteari begira eta Estatuaren zerbitzura lan egiteko erakutsi beharreko jarrera, betebeharrak eta eskubideen mugak finkatzeko, hein handi batean Pilar Primo de Riverak sorturiko *Sección Femenina* emakumezkoen erakunde falangistak indarrean jarritako hezkuntza sistemaz baliatu zen erregimen frankista (Gomez, 2011, 786). Bestetik, kultura katolikoak ere rol erabat menperatzailea eskuratu zuen, Frankoren garaiko Espainia mailako hezkuntza sistema erabat monopolizatuz (Fusi, 2000, 180). Hortaz, *Sección Femenina*-k bultzaturiko heziketa sistemaren osagarri izan zen, espainiar emazte zein ama orok, doktrina erlijiosoak zein fede kristauari jarraiki uneoro erakutsi beharreko jokabide, jarrera zein ohiturak zorrozki inposatuz. Beraz, erregimenak emakumeen aurka, errepresio fisiko eta politikoa ez ezik, kulturala eta morala ere gauzatu zituen (Solé eta Díaz, 2014, 54-57).

Erregimen frankistaren araberako emakume eredu "ideala"

Erregimen frankista eta batez ere Autarkia garaia edota gerra zibiletik hasi eta 1950. urtera bitarteko frankismoaren loraldi garaia, gizarte mailan helarazi zen emakume espainiarraren inguruko eredu idealak ezaugarritzen du besteak beste, Estatuaren zerbitzura lan egin eta etorkizuneko belaunaldien ongizatea sustatuko zuena, balore erlijiosoen zein erregimena goraiatzaren zuten baloreen helarazle gisa (Manrique, 2014, 53). Aurrez aipatu bezala, Elizako instituzioaz zein hezkuntzaren aldetik *Sección Femenina* emakumezkoen erakunde falangistaz baliatu zen Estua "espainiar emakume idealaren eredu" helarazteko (Gomez, 2011, 786). Eredu honek ordea, zorrozki zehaztua eta definitua izateaz gain, jarrera errepresiboa zein zapaltzailea erakusten zuen errepublika garaian emakumeek eskuratu zuten onarpen sozialarekiko. Aipaturiko eredu ideal hau definituko luketen osagarriak, gizarteari eta batez ere bere bigarren mailako gizarte papera zein mendekotasuna uneoro azpimarratzen zuen tutorearen aurrean (aita, eta behin ezkondu ostean senarra) erakutsi beharreko jarrera kontuan hartuta, hurrengo hauek lirateke nagusiki: jarrera pasiboa, humila, apala, ahula, fededuna, fidela edota gizonarekiko adimen intelektual urria. Azken hauek, emakumezkoaren izaera zein nolakotasunaren naturaltasuna definituko lukete (Merino, 2010, 31). Horretaz gain, Eliza Katolikoak, gizarte frankistaren egitura zein sustapena ahalbidetzeko oinarrizko pilare izan zela kontuan hartuz, emakume eredu idealarengan espero zuen ezaugarri bat lehenetsi zuen, xahutasuna edo kastitatea. Beraz, emakumeen birjintasuna jarrera zein ohitura orotan islatzera begira, Eliza Katolikoak eguneroko bizitzan zehar erakutsi beharreko izaera zein irudiaren nolakotasuna zorrozki definitu zuen. Garbitasunak janzkeran, ibiltzeko eran, hitz egiteko eran zein aisialdian zehar islaturik geratu behar baitzen (Moradilos, 2016, 137).

Bestalde, emakumeari emazte eredugarri bat izan eta bere rol-a egokitasunez betetzeko eman beharreko urratsak adierazten zizkioten liburuxka zein aldizkariak ere ugariak ziren. Besteak beste, jarrera humila, etxeko lanekiko ardura, senarraren aurrean edertasuna mantentzea, seme-alabekiko ardura osoa bere gain hartzea eta etxeko buru zen gizonaren nahiera guztiak onartzea azpimarratzen zuten. (Garrido eta Higuera, 2013, 117). Adibide esanguratsu gisa, Pilar Primo de Riverak berak 1953. urtean argitaratutako *Guia de la buena esposa* aipatu daiteke, behin ezkondu eta familia bat eratzean, emakumeek haiei familia kide bezala esleitutako rol-a egokitasunez betetzeko uneoro kontuan izan beharreko 11 arau deskribatuz.

Beraz, Espainia mailan erregimenaren botere organoek inposaturiko eredu uneoro gailentzen zela ziurtatzeko, Autarkia garaian nabarmena izan zen emakumearen gain finkatu zen kontrol eta behaketa zorrotza. Gizarte egitura mantendu eta sustatzen zuen oinarrizko pilare kontsideratzen zen, baina betiere gizonarekiko ezberdina (Ramirez-Macias, 2014, 87-88).

Espainiar emakume idealak Estatuaren zerbitzura lan egin eta baliagarri izan zedin, haren betebeharrak etxeko esparrura mugatzen ziren, gaztetatik eskolako edukien bitartez, barneratu beharreko etxeko andre zein ama rol-a zorrotzasunez definituz. Erregimenak esleitutako gizarte rol-ak, betebeharra etxeko esparrura mugatzeaz gain, emakumearen familiako buru zen gizonarekiko erabateko menpekotasuna bermatuko zuen, ezkondu aurretik aitarekikoa eta ondoren senarrarekikoa. Horretaz gain, emakumea etxeko esparru itxi eta zurruneara bueltaraziz, Estatuari errazagoa egingo zitzaion egunerokotasunean erakusten zuen jarrera zein familiari helarazi beharreko balorekiko errespetua kontrolatzea. Azken aspektu honi loturik, Estatuak, familiaren osaketari loturiko betebeharrari garrantzi berezia eman zion, espainiar populazioa gerra zibilean eman zen heriotza tasa bortizetik berreskuratzerara begira (Manrique, 2014, 54-55).

Hortaz, emakumeak gizarte patriarkal eta klerikal baten baitan derrigorrez burutu beharreko betebeharra familiaren osaketa zen. Hala ere, familia ororen egitura erabat hierarkizaturik zegoen eta sexuaren arabera, familiako kide bakoitzari rol jakin bat esleitzen zitzaion, ongizatea zein zoriontasuna mantentzera begira (Jimenez, 2016, 237). Familiako buru eta soldata bermatzen zuena senarra zen, emakumea bigarren mailako lekuan mantentzen zen bitartean, hura baitzen, ikuspuntu politiko zein erlijiosotik Aberriak eta Jainkoak esleitu zien lekua. Etxeko Andrea arduratuko zen arropa garbitu, sukaldatu, josteta lanak egin eta senarraren behar oro asetzeaz (Soto, 2009, 228).

Hala, tradizio kristauan oinarrituriko familia egitura mantenduko zen, gizarte frankistaren ardatz nagusi zena. Familiaren egiturari loturiko baloreak finko mantendu ziren Espainian frankismoak indarrean jarraitu zuen bitartean, urteek aurrera egin ahala eta mundu mailako eraginaren ondorioz errepresio, zurruntasun eta zorrotzasunean oinarrituriko politika baretu bazen ere (Manrique, 2014, 57-59).

Beraz, alabak edota emazteak ez ziren haien buruaren jabe izango eta horrek gizarteari begira hiritar orori onarturiko eskubideen deuseztapena zekarren. Pilar Primo de Riverak zuzenduriko erregimeneko emakumeek feminitateari loturiko eredu finko eta zurrun bat hartu zuten jarraibide gisa. Eredu honek, errepublika garaian onartu ziren gizonarekiko askatasun zein berdintasun baldintza oro ukatzen zituen

(Merino, 2010, 11). Esaterako, emakumeak ez zuen ondasun propioak izateko eta hauek administratzeko eskubiderik, senarraren baimenik lortu gabe (Ramirez-Macias, 2014, 85-86).

Hortaz, Franko diktadoreak inposaturiko legediak emakumea gizartearen baitako sektore ekonomikoak ezaugarritzen zituzten jardueretatik at kokatzen zuen, zereginak etxeko esparrura mugatuz, emazte ororen senarrarekiko jarrera apala zein seme-alaba anitzak hazi eta hezteko betebeharra bermatuko baitzen. Behin ezkontuta, emakume bati lan munduan langile aktibo izaten jarraitzeko eskubidea ukatzen zitzaion. Etxetik kanpo lan egin eta soldata jasotzen zuten emakumeak ezkongabeak edota alargunak ziren soilik (Garrido eta Higuera, 2013, 117-118).

Eredu idealaren definizioa hezkuntzan

Emakumezkoak, erregimen frankistak definituriko espainiar emakume eredu idealari jarraituz, betebeharrak eta zurrinak zituen etxeko esparrura mugaturik, gerraostean Estatuaren ongizatea sustatzeko lan egin eta ondorengo belaunaldiak heztera begira. Lan munduan langile aktibo moduan aritzeko adina eskuratu arte, neska gazteei eskolaratu eta heziketa eta formakuntza bat jasotzeko aukera eskaintzen zitzaion. Hala ere, erregimen frankistak gizon zein emakumei jaiotzez gizartearen baitan zuten lekua (esparrua, eskuideak zein betebeharrak) esleitzen ziela kontuan harturik, hezkuntza sistema ere agintari frankistek helarazten zuten emakume idealaren sustapenari egokitu behar zitzaion (Manrique, 2014, 54).

Hortaz, *Sección Femenina* erakunde falangista arduratu zen emakumeen etxeko andre eredugarri izateko formakuntzara bideraturiko hezkuntza sistema bat sortzeaz, errepublika garaiko eskola mistoen jarraipena debekatuz. Neskak emazte eta ama izatera zuzendurik zeudela kontuan harturik, heziketa mixtoa pedagogiaren aurkakoa zela kontsideratzen zen (Merino, 2010,49). Edukiek, etxe barneko kudeaketari loturiko jarduera ugari zituzten ikusgai: altzarien zaintza, mahaia jartzeko era, sukaldatzeko era, josteta edota umeen zaintza, besteak beste gerra aurreko heriotza tasari aurre egiteko ondorengo belaunaldien, eta Pilar Primo de Riveraren hitzetan "espainiar soldaduen" etorkizuna ziurtatzera begira. Hura zen emakume batek bere bizitzan zehar, Esatuari baliagarri izan zitzaiola sentitzeko, helburu nagusi gisa hartu beharreko betebeharra, erlijio katolikoan oinarrituriko baloredun etxeko andre gisa, hezkuntza zein lan mundutik aldenduz (Manrique, 2014, 55-56). Beraz, *Sección Femenina* erakundearen zein orden erlijiosoaren zuzendaritzapean, emazte zein ama esaneko eta humil bilakatuko ziren emakumeak (Soto, 2009, 86). Pilar Primo de

Riveraren hitzetan, ezkontza eta amatasuna ziren emakumearen etorkizun ideala definitzen zuten osagaiak (Merino, 2010, 50).

Hezkuntza sistema honen sustapenak beraz, orduko Estatu espainiarraren oinarri ziren baloreak eta sexuaren araberako rol-aren banaketa tradizionala ahalbidetzen zuen. Etorkizunean etxeko andre, emazte zein ama eredugarri bat bihurtzera begira, ez zen kontsideratzen emakumeari egokitasunez irakurtzen edota idazten ikastea bezalako ezagutzak barneratzea baliagarri izango zitzaionik, gobernu errepublikarrak praktikan jarritako alfabetatze planaren aurka. Eskolan, alderdi falangistaren oinarri ideologikoak helarazteaz arduratzen ziren irakasleen aldetik, etorkizunean aplikatuko zituzten etxe barneko jardueren inguruko oinarrizko ezagutza eta ideiak jorratzen ziren (Ramos, 2016, 160). Horretaz gain, neska gazte batek eskolan etxean baino denbora gehiago igarotzea ere ez zen begi onez ikusten (Manrique, 2014, 55).

Ideologia frankistaren oinarri ziren ikuspuntu politiko, zientifiko zein erlijiosotik aztertuz, heziketa fisikoari loturiko irakasgaia zen espainiar emakume idealak gizarteari begira erakutsi beharreko irudia baldintza zezakeena. Zentzu honetan, Estatua testu sakratuen zein ikerketa zientifikoaren baieztapenez baliatu zen emakumearen erresistentzia fisiko ahula frogatzeko. *Sección Femenina* erakunde falangistak planteaturiko heziketa sistemak ordea, heziketa fisikoaren lanketa ezinbestekotzat jotzen zuen eta nesken formakuntza bideratzeko oinarrizko jarduera bilakatu zen, ama zein emazte paperean egokitasunez jarduteko osasuna mantentzera begira (Suarez, 1997, 61). Hala ere, ez zen begi onez ikusten emakume bat esparru publikoan kirolean aritzea, batez ere Eliza Katolikoak aurkezturiko argudioei erreparatuz. Elizak inposatutako arau tradizional eta ultrakontserbadoreak uneoro errespetatu beharrekoak ziren emakumeei heziketa fisikoari loturiko ezagutzak helarazteko garaian. Kirola egitekotan, jarrera zein itxura fisiko egoki bat mantentzea derrigorrezkoa zen, ohitura kristauei aurre eginez esparru publikoan gorputz atal jakin batzuk erakustera heldu gabe (Ramirez-Macias, 2014, 94-95).

Beraz, heziketa sistemak ikuspegi sozial orokorrak ezarritako oztopoei aurre egin behar izan zien (Manrique, 2014, 60). Bestalde, heziketa fisikoak garaian zuen prestigio urria kontuan hartuta, emakumeei zuzenduriko heziketa fisikoak gizarte mailan jasotako onarpena are urriagoa izan zen (Ramirez-Macias, 2014, 94).

Garaian ohikoenak ziren kirolak, tradizionalki maskulinitateari loturikoak ziren, futbolaren antzera. Hortaz, emakumezkoarentzat ez zen erraza haien kirol horretan aritzeko nahia justifikatzea, aipaturiko emakume idealaren betebeharren eta kirolaren artean erlazio "naturalik" ez zela kontuan hartuta (Ramirez-Macias, 2014, 80). Hori dela eta, *Sección Femenina*-k emakumearen gizarte mailako ardura nagusi zen

amatasuna kontuan hartuz, irakasgaia moldatu behar izan zuen, mundura ahalik eta ondorengo gehien osasuntsu ekartzeko gorputza landu eta garbitasuna mantentzera begira. Horrez gain, umeen zaintza eta osasunari buruzko ezagutzak helarazten ziren (Ramirez-Macias, 2014, 94-95).

Frankismoaren eragina gaur egungo gizartearen baitan

Trantsizio garaitik azken urteetara arte Estatu mailan aurrera emandako berdintasunean oinarritutako politika arrakastatsua izan dela esan liteke, bestek beste emakumeen hezkuntza, lan mundu edota politikarako sarbidea bermatu dela kontuan hartuz. Hala ere, emakumei aipaturiko esparru hauen baitan eskaintzen zaizkien aukera eta baldintzek ez dute berdintasunean oinarrituriko politikarekin guztiz bat egiten. Hezkuntza arloari dagokionez, eta bereziki unibertsitate mailako ikasketetan zentratuz, oraindik ere anitzak dira emakumeekin edota gizonetzkoekin erlazionatu ohi diren gradu eta ikasketak. Horretaz gain, emakumeen langabezia tasak gizonetzkoena baino altuagoa izaten jarraitzen du, baita "emakumeen ikasketak" kontsideratu izan ohi direnen kasuan ere (Alonso eta Furió, 2007, 34-35).

Bestalde, behin lanpostua lortuta ere, orokorrean emakume bati eskaintzen zaizkion eskubide, kategoria, lan baldintza zein soldatek estatus maila baxuagokoak izaten jarraitzen dute, baita emakume kopurua gizonena baino altuagoa den lanpostuetan ere. Hezkuntza arloari helduz, irakaskuntza emakumezkoen lanpostuetat hartu izan dela kontuan hartuz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edota unibertsitate mailako ikasketei dagokienez, emakume baten presentzia ez da Haur Hezkuntza edota Lehen Hezkuntzan bezain nabaria. Soldatari dagokionez, sektoreen gehiengoaren kasuan, emakumeen soldata gizonena baino urriagoa da. Batz besteko ezberdintasuna %30-ekoa da (Alonso eta Furió, 2007, 35).

Horretaz gain, arlo publiko zein pribatuari loturiko zerbitzuen arteko konparaketa bat burutuz, emakumeen eskubideen onarpen mailaren aldea nabaria da, esparru pribatuan publikoan ziurtasun handiagoz bermatzen diren eskubide sozialen deuseztapena ematen dela kontuan hartuta. Azken aspektu honi, gaur egun oraindik ere emakumeekin erlazionaturiko ogibideek duten gizarte mailako kontsiderazio zein lehenetasun eskasa gehitu beharko litzaioke (Alonso eta Furió, 2007, 41-42).

Etxeko lanen ardura, banaketa eta antolaketarekin jarraituz, gizartearen baitako sexuaren araberako rol bereizketak nabaria izaten jarraitzen du oraindik ere. Horrez gain, gizon zein emakumeen egungo pentsaera orokorrean aztertuz, gehiengo batek etxeko lanei loturiko jarduerak emakumeen ardurarekin erlazionatu ohi ditu. Familia bat osatzeko beharrari erreparatuz ordea, datuek hobekuntza nabariago bat islatzen

dute, azken urteotan zehar Espainia mailako jaiotze tasaren jaitsiera eman baita eta espainiar gizon zein emakumeen gehiengoak seme-alaben ardurak lana eta aisialdiaren kudeaketa oztopatzen duela uste du (Alonso eta Furió, 2007, 39).

Gaur egun, hezkuntza arloan gerra zibilaren eta gizarte mailan pairatu ziren ondorio esanguratsuenen inguruko lanketa jorratzen denean, gizartea bi bandotan zatiturik irudikatzen da: alderdi errepublikarra eta nazionala. 1939. urtean, estatu kolpearen ondorioz erregimen diktatoriala gizarte mailan inposatzean errepublikarrei dagokienez errepresio bortitzean oinarrituriko politika jarriko zen praktikan. Gerra zibilaren amaierak ordea, errepublika garaian emakumezkoaren eskubideen inguruan emandako aurrera pausuak ezabatu zituen, Estatuaren gerraosteko ongizatea ziurtatzeko emakumea umeak hazi, hezi eta diktadura oinarritzen zuten baloreak helarazteko tresna gisa erabiliz (Gomez, 2011, 786). Beraz, eduki teoriko gisa lantzean, espainiar gerra zibila eta gizartearen ideologiaren araberako banaketa ezaugarritzen duten bi bandoen arteko guda, errepublikarren galera eta nazionalen garaipenak ekarri zituen ondorio nagusiak lehenesten dira. Gerra zibilaren amaierak ordea, espainiar emakume ororen gizarte mailako eskubide, onarpen eta hiritar gisako gizonarekiko independentziaren deuseztapena bermatu zuten, emakume bakoitzaren oinarri ideologiko zein politikotik haratago.

4. ESKU HARTZE DIDAKTIKOAREN PROPOSAMENA

4.1 Proposamenaren helburuen eta erreferentziazko curriculum dokumentuen arteko egokitzapena eta erlazioa

Heziberri 2020 erreferentziazko curriculum dokumentua kontuan hartuz, ondorengo oinarritzko zehar konpetentzien garapena lehenetsiko da proposamen didaktiko honen bitartez:

- 1. Hitzez eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia.** Hitzez eta hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala osagarri egitea, egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan modu egokian eta eraginkortasunez komunikatzeko.
- 2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.** Ikasteko eta lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea,

ikasitakoa mobilizatu eta beste testuinguru eta egoera batzuetara helaraziz, norberaren ikaskuntza autonomiaz antolatzeko.

3. Elkarbizitzarako kompetentzia. Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasun-irizpideekin parte hartzea, gainerako pertsoneri nork bere buruari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak aitortuz, eta horrela, ekarpen bat egitea norberaren eta guztion onari.

4. Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako kompetentzia. Ekimenez jardutea eta prozesu ekintzailea ausart eta eraginkor kudeatzea egoera eta testuinguru pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan, ideiak ekintza bihur daitezen.

5. Norbera izaten ikasteko kompetentzia. Norberari bizitzako esparru eta egoera guztietan sortzen zaizkion sentimenduez, pentsamenduez eta ekintzez gogoeta egitea, haiei buruz egiten den balorazioaren arabera sendotu eta horiek guztiak egokitzea, eta, era horretan, etengabeko hobekuntzaren bidez, norbera autorrealizaziora bideratzea, errealizazio horren dimentsio guztietan.

Oinarrizko zehar kompetentziei jarraituz, proposamen berritzaile honen funtsa ondorengo hauetan oinarrituko da:

- **Hizkuntza eta literatura komunikaziorako kompetentzia.** Kompetentzia honen garapenaren bitartez, hitzezko eta idatzizko testuak erabiltzen dira, euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan, bizitzako egoera guztietan egoki, eraginkortasunez eta hizkuntza-aniztasuna errespetatuz komunikatzeko. Horrekin batera, heziketa literarioa lantzea, nork bere burua eta ingurunea hobeto ezagutzen laguntzeko.

Unitate didaktiko honetan, informazio iturri anitzen aukeraketa eta sailkapenaren bitartez, hizkuntza aniztetan idatziriko artikulak ulertzeko gaitasunaren garapena emango da. Horretaz gain, taldeko lanaren, ikasgelako eztabaida orokorren zein aurkezpenen bidez, ikasleek, ideiak modu argi eta

egokian eta perpausa zuzenen bitartez adieraziz, hiztegi teknikoa menderatu eta eraginkortasunez komunikatzeko gaitasuna barneratuko dute.

- **Konpetentzia sozial eta zibikoa.** Konpetentzia hau garatuz, nor bere burua, norberaren taldea eta bizi duen mundua ulertzen da, gizarte-zientzien jakintzak eskuratuz, kritikoki interpretatuz eta erabiliz; zientzia horien berezko prozedurak eta metodologiak erabiltzea, autonomiaz eta herritarrei dagokien arduraz jarduteko bizitzaren ohiko egoeretan, gizarte guztiz demokratikoa, solidarioa, inklusiboa eta plurala lortzeko bidea urratzearren.

Iragan historikoa gaur egungo gizarte egiturari zein ikasleen egunerokotasunarekin erlazionatuz, orainaldia zein lehenaldia haien osotasunean ezagutu eta kritikoki aztertzeari bide emango zaio, etorkizuneko gizarteratze prozesura begira, hiritarren hobe beharra sustatu eta historiako arloak eskaintzen dituen jakintzak praktikoki erabili ahal izateko.

Unitate didaktiko honen bitartez praktikara eramango diren diren helburu, eduki zein ebaluazio irizpideei dagokionez, Heziberri 2020 erreferentziazko curriculum-ari jarraituz, Historiako irakasgaiaren barneko Espainiako Historiako irakasgaiari loturik zehazten direnak jorratuko dira:

Helburuak:

- Historiaren kontzeptuak, terminoak eta oinarrizko teknikak behar bezala erabiltzea, hainbat informazio aztertu, konparatu eta bateratzea, eta ikerketa historikoko lanak egitea (bakarka edo taldean), lehen eta bigarren mailako iturri historikoen garrantzia eta historialarien lana balioesteko.
- Ikasgaiaren berezko edukiak ahoz zein idatziz behar bezala adierazi eta komunikatzea eta hainbat hizkuntza eta euskarritan adierazita dauden datu eta informazio historikoak hautatu eta interpretatzea, aztertutako prozesu historikoak behar bezala ulertzeko.
- Gaur egungo gizartearen arazoak zein diren jakitea, haien jatorri historikoak aztertzea, eta dauden errealitateak eta egoerak ebaluatzea, haien inguruko iritzi pertsonal kritikoa eta arrazoitua izateko eta, hainbat eskalatan, jardun

alternatibo eraginkorrak sustatu eta abian jartzeko, era horretan pertsonen arteko eta gizarte-taldeen arteko harremanak hobetu daitezten.

- Fenomeno historikoak zuzentzen dituzten prozesu eta mekanismoak aztertzea, eta egungo gizartearen bilakaeraren arrazoï ugariak ulertzea, historiaren ikuspegi orokor, arrazoitu eta kritiko bat izateko.

Edukiak:

1. Eduki multzoa: Eduki komunak.

Eduki komun zeharkakoak:

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea eta berreskuratzea.
- Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea.
- Informazioa ulertzea (alderatzea, sailkatzea, sekuentziatzea, aztertzea eta laburtzea), buruz ikastea eta adieraztea (deskribatzea, definitzea, laburtzea, azalpenak ematea, etab...).
- Informazioa balioestea eta adieraztea (argudioak azaltzea, arrazoïak ematea, etab.).
- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea eta, beharrezkoa baldin bada, hura doitzea.
- Plangintzaren eta egindako lanen ebaluazioa egitea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Lortutako emaitzaren berri ematea.
- Pertsonen arteko harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea.
- Giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea.
- Gatazkak kudeatzea.

Eduki komun espezifikoak:

- Gertakari eta prozesu historikoen osagai ekonomikoak, sozialak, politikoak eta kulturalak identifikatzea.

- Gertakari historikoen kausa anitzak aztertzeke jarraibideak: gertakari historikoen eta bilakaera eta aldaketako prozesuen kausak eta ondorioak identifikatzea.
- Lehen eta bigarren mailako iturriak bilatzea, hautatzea, aztertzea eta interpretatzea.
- Iturri historikoak zorrotz eta objektibotasunez aztertzea eta interpretatzea, eta azalpen sinplistik eta historiografiaren ikuskera partzialak (etnozentrismoak, eurozentrismoak, androzentrismoak eta bestelakoak) baztertzea.
- Testuek, mapak, grafikoez, estatistika-taulek, prentsak, ikus-entzunezko bitartekoez eta Internetek jasotako informazio historikoa aztertzea eta interpretatzea.
- Historiako gertakari edo prozesuren baten gaineko zenbait interpretazio historiografiko aztertzea, eta ikuspuntu ezberdinak kontrastatzea eta balioestea.
- Iraganarekiko interesa eta jakin-mina izatea, oraina ulertzeko.
- Pertsonen eta kolektiboen historian zehar izan dituzten bizimoduak, sinesmenak eta jarrerak tolerantziaren eta errespetuz hartzea eta horien balioespen kritikoa egitea.
- Egoera bidegabea, gerrei, terrorismoari eta edozein indarkeria motari buruzko ikuspegi kritikoa izatea, eta elkarrizketa begiz jotzea gatazkei aurre egin eta konpontzeko biderik zuzen eta eraginkorrenzat.
- Gizonek eta emakumeek egindakoa balioestea, historiako subjektu diren aldetik.
- Pluraltasuna eta desadostasunak gizarte-bizitzaren funtsezko osagai direla onartzea.
- Komunitate-bizitzan gogoz parte hartzearen garrantziaren jabetzea.
- Bakearen, justiziaren eta berdintasunaren alde egiten duten proiektuetan eta ekintzetan laguntzea.

13. Eduki multzoa: Espainia Europatik kanpo: diktadura frankista (1939-1975).

- Hasierako etapa: frankismoko talde ideologikoak eta gizartean zituen babesleak; kanpo harremanak; Estatu berriaren egitura politikoa; autarkia ekonomikoa.

- "Desarrollismoaren" urteak: garapen-planak eta hazkunde ekonomikoa; gizarte-eraldaketak; erregimenaren berrespen politikoa; kanpo-politika; erbestea, errepresioa eta gero eta aurkakotasun handiagoa frankismoari.

Ebaluazio irizpideak:

- Historiaren kontzeptuak, terminoak eta oinarrizko teknikak erabiltzea, lehen eta bigarren mailako iturri historikoek betetzen duten zeregina balioestea, historialariaren lana aintzat hartzea eta jakintza historikoa etengabe lantzen ari den prozesua dela ulertzea.
- Egoki, berezkotasunez eta modu sortzailean adierazten ditu ikasgaiaren berezko edukiak, ahoz edo idatziz.
- Egungo gizartean ditugun eta Euskal Herriko eta Espainiako iragan historikoari lotuta dauden gai garrantzitsuei buruz dituen ikuspuntu propioak argudiatzea
- Gaur egungo auzi batzuei buruzko eztabaidetan parte hartzea eta haietan iritzi arrazoituak ematea gizarte-zientzietan oinarrituta, eta besteen iritziak errespetatzea.
- Egungo gizartean dauden hainbat gatazka eta erronkaren sustrai historikoak identifikatzea, eta informazio orokor eta historiografikora jotzea.
- Gertaera eta prozesu historiko garrantzitsuen arrazoiak eta ondorioak adieraztea, haien artean loturak egitea, eta ohartzea gizarte-gertakariak hainbat arrazoi izan ditzaketela.
- Euskal Herriko eta Espainiako egungo gizartean irudi anitz eta integratzaile bat lantzea, eta horretarako mota orotako informazioak aztertzea (sozialak, kulturalak, historikoak eta abar).
- Euskal Herriko eta Espainiako gizarteek dituzten arazoaren aurrean kontzientzia konprometitu, arduratsu eta aktibo bat garatzea.

4.2 DESKRIBAPENA

Unitate didaktiko berritzaile hau, 2. batxilergoko historia arloko irakasgaia den Espainiako historian ipiniko litzateke praktikan. Proiektua 10 saiotan banatzen da, 4 atal nagusiren barnean banatzen direnak.

1 ATALA: ZER DAKIGU FRANKISMOAREN INGURUAN?

1 SAIOA: ZERTAN DATZA FRANKISMOA?

Lehen saioan zehar, helburua frankismo garaiko testuinguruan kokatzea izango da, jarraian xehetasun handiagoz aztertuko den emakumeari esleitu zitzaion rol-a hobeto ulertzeko. Sarrera gisa, irakasleak gerra zibilaren osteko testuinguru edota egoera orokorraren inguruko azalpena emango du lehen 15 minutuetan, gizarteak pairatu zituen gerraren ondorio nabarmenenak azpimarratuz. Frankoren erregimenaren hasierari eta hari dagozkion ezaugarriei dagokienez, ikasleen aldetik modu praktiko batean gauzatuko da lanketa.

Jarduera hau garatzeko aurrez finkatutako helburu didaktikoei begira, alde batetik erregimen frankistaren ezagupenean datza bere osotasunean, arlo politikotik haratago. Bestetik, elkarlanean aritu eta kide guztien iritzi eta ideiak kontuan hartuz era koordinatuan lan egiteko gaitasunarekin batera, IKT-en erabilera sustatuko da, ikasleengan informazio iturriak bilatu, ulertu, interpretatu eta sailkatzeko gaitasuna garatzeko. Aldi berean, informazio iturri anitzen kontsultarekin batera, iragana ikuspuntu anitzetatik eta kritikoki aztertzeke gaitasuna ere landuko da.

Ikasleen artean, 4 pertsonako 5 taldetan banatuko dira eta talde bakoitzeko 2 ordenagailu erabiliko dira. Jarduera bakoitzean taldekide kopuru bera mantenduko bada ere, saio bakoitzeko lan taldeak ezberdinak izango dira, ikasle bakoitzak gainerako ikasle guztiekin elkarlanean aritu eta iritzi eta ezagutzak denekin partekatzeko aukera edukitzera begira. Hala ere, saio bakoitzeko kideen osaketa ikasleen ardurapeko lana izango da.

Talde bakoitzak, erregimen frankistaren ezaugarri esanguratsuenak zerrendatuko ditu, arlo politikoa, ekonomikoa eta bereziki soziala kontuan hartuz. Ezaugarrien zerrendaketa, saioaren lehen 45 minutuetan gauzatuko da eta horretarako IKT-ez baliatuko dira irakasleak. Ondoren talde bakoitzak gailendu dituen ideiak amankomunean jarriko dira ikasgelan azken 30 minutuetan zehar. Horretarako,

talde bakoitzeko kide batek arbelean idatziko ditu bere taldean kontuan hartu diren ezaugarriak eta eztabaida orokor baten bidez, guztiak kontrastatuko dira, testuinguru historiko orokorra ondorengo saioetan zehar burutuko den emakumearen gizarte mailako rol-arekin modu argiago batean erlazionatzeko.

2 ATALA: EMAKUME ORO GERRA ZIBILEKO GALTZAILE

2 SAIOA: ESPAINIAR EMAKUME IDEALA

Saio honetan zehar burutuko den ariketa emakumeei, eskolan jasotzen zuten heziketaren eta erregimenak helarazten zien "espainiar emakume idealaren" ereduaren bitartez, gizartean esleitzen zitzairen rol-aren inguruko hausnarketa garatzean oinarrituko da. Horretarako, bi irudiren azterketa eta interpretapenez baliatuz, ikasleen aurre ezagutzak neurtuko dira edukia sakonki jorratu aurretik (1. eranskina). Aztergai diren bi irudiak, *Sección Femenina* emakumezkoen erakunde falangistak, etorkizuneko etxeko andreen prestakuntzara begira sorturiko heziketa eredu eta metodologian oinarrituz, garaiko testu liburuen bidez sustatu zituen edukien adibide dira. Eduki hauen bitartez, hiritar orok erregimen frankistari leialtasuna zor zion heinean, emakumearen gizarte mailako rol-a, ardura eta betebeharra, etxe barneko esparrura mugatzen zela adierazten da.

Saio honetan landuko den jarduera praktikan jartzeko aurrez planteaturiko helburu didaktikoei dagokienez, irudien bidezko interpretazio eta hausnarketa gaitasunarekin loturik egongo litzateke. Beraz, garaiko testuliburuak erakusten zituzten irudikapenak sakonki deskribatuz eta aztertuz, testuinguruari loturiko ezkutuko mezua adierazten jakin eta ideiak elkarrekin erlazionatzeko gaitasuna garatu nahi da.

Jarduera hau ere talde dinamikaren lanketan oinarrituko da. Ikasleak 5 pertsonaz osaturiko 4 taldetan banatuko dira. Lehen bi taldeek, lehen irudia aztertuko dute eta beste biek aldiz bigarrena. Lehenik eta behin, talde bakoitzak irudikapenean islatzen dena deskribatuko du eta ondoren, aurreko saioan aztertutako erregimen frankistaren ezaugarri nagusiez baliatuz, irudi hauen bitartez garaiko eskoletan, etorkizunera begira, neskei helarazi nahi zitzairen mezua aztertu beharko dute.

Irudien azterketa saioaren lehen 30 minutuetan burutuko da eta ondorengo 30 minutuetan zehar, bi irudiak testuinguruan kokatu eta haien arteko antzekotasunak

aztertuko dira. Horrekin batera, erregimen frankistan zehar ohikoa zen nesken ikasgela eredu bat erakusten duen argazki bat aztertuko da, eta ikasleek saioan zehar aztergai izan diren testuliburuetakoko bi irudien arteko erlazio bat finkatu beharko dute (2. eranskina).

3 SAIOA: ISILARAZITAKO EMAKUMEEN AHOTSAK

Alderdi matxinatuaren garaipenak eta diktadura frankistaren behin betiko finkapenak alderdi errepublikarraren porrota eta hauen aurkako etengabeko errepresioaren hastapena suposatu zuten. Gerra zibila gertakari historiko moduan aztertu eta kontatzean, ikuspegi politikoaz baliatuz, bi bandoen arteko guda moduan hartzen da beti, nazionalistak eta errepublikarrak, bataren garaipena eta bestearen porrotari erreferentzia eginez. Erregimen frankistaren baloreei erreparatuz ordea, ez da kontuan hartzen gizarte talde batek bere osotasunean pairatu zuela errepublika garaian onartu zitzaizkien eskubide eta onarpenen galera: emakumeak, alderdi errepublikar nahiz nazionalekoak.

Jarduera honen helburu didaktikoei dagokienez, ikasleengan gertuko iragan zein esparru geografikoan emakumeek gerra zibilaren ostean Estatuaren aldetik pairatutako gizartearen baitako onarpen mailaren zapalkuntzaren inguruko kontzientzia garatzea izango litzateke. Hortaz, sentimenduen interpretapenaren bitartez, enpatia gaitasuna landuko litzateke, elkarlanean modu aktiboan parte hartzeko gaitasunarekin batera.

Saio honetan zehar, bi dokumental hauek landuko dira: *La mujer en el franquismo* eta *Mujer y educación en España*. Dokumental hauetan, errepublikaren amaiera, gerra zibila eta frankismoaren inposaketa pairatu zuten emakumeek jasan zuten menderapena aztertzen dira, bigarren dokumentalean, eraldaketa bortitz hau jasan zuten emakumeen esperientzia pertsonalaren azalpenaz baliatuz. Besteak beste, hezkuntza mailako eskubideei, gizartea aurrera eramateko esleitu zitzaizkien betebeharrak nagusiei eta onarpen sozialari egiten zaio erreferentzia.

Bestalde, Pilar Primo de Rivera-k, 1934. urteko *Sección Femenina* erakunde falangistaren sortzaileak, 1953. urtean argitaratu zuen *Guía de la buena esposa* esku liburua aztertuko da. Bertan, bere alderdi politikoak definitzen duen emakume eredu bikainak ezinbestean eduki beharreko ezaugarriak biltzen ditu, beste askoren artean esanekoa izatea, amatasunaren barneraketa, ahultasuna edota sakrifizioaren kontzientzia.

Behin bi dokumentalak eta esku liburuaren biltzen dituen legeak aztertuta, ikasleak 4 pertsonako 5 taldetan batuko dira beste behin eta talde bakoitzak ondorengo galdetegia erantzun beharko du. Dokumentuen azterketa eta galdetegia saioaren lehen 60 minutuetan zehar burutuko dira. Ondoren, azken 30 minutuetan, ikasgelan eztabaida orokor bat zabalduko da, talde bakoitzean eztabaidatu eta irten diren ideien alderaketa orokorra egiteko. Saioaren amaieran, irakasleak galdetegiak jasoko ditu.

GALDETEGIA:

- *La mujer en el franquismo* bideoaren hasieran, gerra zibila alderdi errepublikar zein nazionalako emakumeek galdu zutela azpimarratzen du Matilde Peinado ikerlariak. Zer adierazi nahi da esaldi honekin?
- Adituak, erregimen frankistak emakume eredu zehatz baten sorrera bultzatu nahi izan zuela adierazten du, "Mujer a la española" bezala izendatua. Zein zen emakume "eredugarri" hauen Estatuarekiko erantzukizun nagusia? Zer nolako tresnak erabiltzen ziren eredu hau gizartera helarazteko?
- Azken aspektu honi loturik, zeintzuk izan zitezkeen Errepublika garaian emakumeei onartu eta gerra zibilaren amaierarekin batera ukatu zitzaizkien eskubideak? Zein zen eskaintzen zitzairen hezkuntza sistemaren bitartez emakumeari esleitu nahi zitzaion rol-a?
- *Mujer y educación en España* bideoan, erregimen frankistak inposatutako heziketa sistemaren eraginpean egondako zenbait emakume elkarrizketatzen dira. Hezkuntza duin bat jaso eta eskolara joan ahal izateko eskubideari loturik, parekideak al ziren haiei eta gizonezkoei eskaintzen zitzaizkien aukerak?
- "La mujer, debe ser objeto de placer pero nunca sujeto de placer". Esaldi honetatik abiatuz, zeintzuk ziren emazte on batek senarraren beharrak asetzeko bete beharreko baldintza nagusiak?
- *Mujer y educación en España* bideoan garaiko abesti bat entzun daiteke, non neska gazte batek bere lagunei bere betebeharrak nagusia etxera ordu zehatz batean eta garaiz heltzea litzatekeela gogorarazten dien. Zein informazio aurki

daiteke abesti honen letraren atzean? Ematen al du frankismoak emakumeei transmititu nahi zizkien baloreen berri?

4 SAIOA: ELIZA, FRANKISMOAREN PILARE ETA EMAKUMEAREN GIZARTE ROL-AREN SUSTATZAILE NAGUSI

Elizako instituzioa, erregimen frankista oinarritzen zuten ideia, balore eta gizarte ereduaren sustatzaile nagusi izan zen, baita erregimenaren loraldia sustatzeko pilare eta emakume espainiar eredu idealaren helarazle ere. Emakumezkoak gizarteari eta bereziki gizonari edota haien tutoreari begira erakusten zituzten jarrera zein ohiturak elizarengandik zorrozki kontrolatuak izaten ziren, uneoro haien eskubide, betebeharrak eta jokabideak zehazki definituz.

Saio hau emakumearen egunerokotasunean elizak zuen eragina aztertzerako bideratuko da. Horretarako, saioaren lehenengo 5 minutuetan, Ahotsak.com webgunean eskuragarri dagoen bideo baten azterketa burutuko da, *Emakumeen egoera lehen* deiturikoa. Bertan, haien egunerokotasunean elizaren zuzeneko eragina pairatu zuten emakumeen ahozko testigantzak aztertzen dira, jokabideak zuzentzeko aitorpenak egiteari edota ezkontzeko beharrari lotuta.

Helburu didaktikoei begira, ikasleen gaitasun emozionala eta jarrera enpatikoa garatu nahi dira bereziki, etorkizuneko gizarteratze prozesura begira inguruko sentimenduak identifikatzen eta ulertzen jakiteko gaitasuna. Horretaz gain, galdetegiaren bitartez, galderei ideiak eta argudioak sakontasunez garatuz eta haien arteko elkar lotura zuzenak burutuz erantzuteko gaitasuna landu nahi da, aldi berean, perpausak osatzeko era eta idazkera zainduz.

Behin bideoa ikusita, ikasleak binaka jarriko dira eta bikote bakoitzak hurrengo galdetegi hau erantzun beharko du hurrengo 15 minutuetan zehar. Galdetegia erantzun ostean, bi bikote elkartuko dira haien artean, lau taldeak osatuz, erantzunen alderaketa bat burutzeko. Ariketa honi beste 15 minutu eskainiko zaizkio. Azkenik, ikasgela osoaren artean erantzunak amankomunean ipiniko dira azken 25 minutuetan. Saioaren amaieran, irakasleak galdetegiak jasoko ditu.

GALDETEGIA:

- Baliatu al zen frankismoa elizako instituzioaz hein handi batean emakume idealaren eredia gizarte mailan errotzeko? Nola?

- Gizarte mailan erakutsi beharreko jarrerei dagokionez, zer nolako eragina zuen elizak emakumezkoaren eguneroko ohiturak definitzeko orduan? Jarri adibideren bat.
- Esanahi bera al zuen gizon eta emakumeentzat ezkontzeak?
- Ondo ikusita al zegoen emakume bat ez ezkontzea? Zergatik?
- Definitzen al du elizak, behin ezkondu eta gero, emazteak senarrarekiko erakutsi beharreko jarrera?
- Emakume hauen ikuspuntutik abiatuz, lortu al da gaur egungo gizartean erabateko berdintasuna?

3 ATALA: FRANKISMOA GAUR EGUNGO GIZARTEAREN BAITAN

5 SAIOA: MARTXOAK 8, GENERO BERTINTASUNA ALDARRIKATZEKO BEHARRAREN SEINALE

Emakumearen aurkako jazarpenak eta eskubideen baliogabetzeak frankismo garaiazen loraldian nabarmendu ziren gehienbat, 1940-1950 bitartean. XX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera ordea, erregimenaren aldeko zorrotasuna urrituz joan zen, Estatuak mundu mailako eraginari ateak zabaldu baitzizkion. Frankismoaren gainbeherarekin batera, atzerriko eraginaren ondorioz, gizarteak oinarri moduan zituen baloreen eta pentsamoldeen aniztasuna areagotuz joan ziren (Pereda, 2003, 171). Horretaz gain, zenbait sektore eta gizarte talderen eskutik ordura arte aditzera eman ez ziren aldarrikapenak zabalduz joan ziren, horien artean genero berdintasunaren borroka kontzeptuari, lan munduari zein onarpen sozialari zegozkienak.

Gaur egun, etengabe eraldatzen ari den gizarte batean bizi bagara ere, lortu al da gure gizartearen hobekuntza sustatzeko emakumeek gizonen duten rol eta erantzukizun maila bera izatea? Berdinak al dira egungo gizartearen baitako arlo eta aspektu guztietan eskaintzen zaizkien eskubideak?

Jarduera honen helburuei dagokienez, ikasleengan garatu nahi diren gaitasunei eta helburu didaktikoei begira, lehena gaur egungo errealitatea bere osotasunean ezagutzea eta aldi berean, gertuko aurrekari historikoek haren egiturari izan

dezaketen zuzeneko eragina ulertzea litzateke. Bigarrena, behin gaur egungo gizartearen lanketa sakonago bat jorratuta, erregimen frankista erreferentzia gisa hartuz gure gizartea kritikoki aztertze gaitasuna garatzea litzateke, etorkizuneko hobekuntza bideratzeko erabakiak hartze gaitasuna garatzera begira. Azkenik, gaurkotasanarekin erlazionatuz, eduki historikoak modu praktikoko batean barneratu eta interpretatzeko gaitasunaren lanketa ere emango da.

Lehenik, martxoaren 8-ko genero berdintasunaren aldarrikapenaren aldeko borrokaren egunean Espainia mailako hainbat gunetan emandako matxinaden berri ematen duen albiste bat aztertuko da. Ondoren, ikasleak 4 pertsonako lan talde berrietan elkartuko dira eta Estatu mailan lan munduan oraindik diharduen emakumeen gizonetik bereizkeria aztertzen duen albiste bat aztertuko dute. Bi informazio iturrien bitartez barneratutako datuez baliatuz, ondorengo galdetegi erantzun dute lehen 45 minutuetan. Behin galderak erantzun ondoren, gainerako 45 minutuetan zehar, ikasgelan eztabaida orokor bat zabalduko da, talde bakoitzean adostu eta irten diren ideien alderaketa orokorra egiteko. Saioaren amaieran, irakasleak galdetegiak jasoko ditu.

GALDETEGIA:

- Bi albiste hauetatik abiatuz, zeintzuk izan dira gaur egun emakumeak gizartean duen rol-aren inguruan eman diren hobekuntza edota eraldaketa positiboak frankismoarekiko?
- Aurrera pausu hauen bitartez lortu al da ordea erabateko berdintasuna? Identifika al daiteke oraindik frankismo garaiarekiko berdintasunik?
- Identifika al daiteke oraindik egungo gizartean eta pentsamenduan 1953-ko *Guía de la buena esposa* esku liburuan zehazten diren 11 legeen eraginik?
- Zein aspektu positibo eta negatibo nabarmenduko zenituzkete emakumeak egungo lan munduan duen garrantziaren inguruan? Eta gizarte mailan?
- Zein neurri bultzatu beharko lirateke etorkizunean frankismoak helaraziriko bigarren mailako emakumearen irudia gure oroimenetik ezabatze.

6 SAIOA: GARBIKETA LANAK=EMAKUMEA?

Jarduera honetan, bi iragarkiren bitartez, erregimen frankistak gizarteari helarazi nahi zion emakumearen irudikapen "ideala" egungo gizarteak definitzen duenarekin alderatuko da. Modu honetan, frankismo garaitik azken hamarkadetara arte emakumearekiko ikuspegi orokorraren eta gizarte mailan esleitu zaion rol-aren inguruan eman den eraldaketa maila behatu eta modu kritiko batean aztertzea litzateke helburu nagusia. Erregimen frankistak emakumeak gizartearen ongizatea sustatzera begira erakutsi beharreko itxura ohitura zein jarrerak modu zuzenagoan helarazi eta inposatzen bazituen ere, egungotasunarekiko antzekotasun bat topa dakioke, komunikabideek gaur egun ere mezu hau helarazteko baliabide esanguratsu izaten jarraitzen dutela kontuan hartuz. Haien artean, telebistako iragarkiak nabarmendu daitezke.

Lehen iragarkiak, emakumeak gerra ostean gizarte mailan eta gizonarekiko zuen bigarren mailako posizioaren berri ematen du. Kasu honetan baxeraren garbiketa emakumearen esku dagoen egin behar moduan definitzen da, etxeko lanetan gizonak emakumeei laguntzeko mesedeak egin behar dizkietela adieraziz. Ondoren, 2017. urteko iragarkiari erreparatuz, honako hau ere garbiketa produktu baten ingurukoa da, seme-alaben arropen garbiketa emakumearekin soilik erlazionatuz.

Saio honek oinarri moduan dituen helburu didaktikoei dagokienez, alde batetik ikasleak erregimen frankista ezaugarritzen zuen ideologiak egungo gizartearen baitan oinarri izaten jarraitzen duela ohartaraztea litzateke, hau da, frankismo garaitik gaur egunera ez dela emakumeen betebeharrak eta gizarte mailako irudiari loturiko ideien inguruko guztizko eraldaketarik eman. Hortaz, aldi berean, egungo gizarte egiturak erakusten dituen hutsune edo gabeziak identifikatu eta kritikoki aztertzea ere helburu izango luke, aldi berean ikasleei iragarkien bitartez helaraziriko ezkutuko mezuek gizartearen baitan zein haiengan izan dezaketen eragina identifikatu eta honekiko kontzientzia garatzeko aukera ahalbidetuz.

Behin bi iragarkiak ikusita, ikasleak lan taldetan bilduko dira eta saioaren lehen 45 minutuetan zehar galdetegi bat erantzun beharko dute, hausnarketa gaitasuna lantzeko ariketa moduan. Behin galdetegia erantzun eta gero, ikasgela osoaren artean hausnarketa orokor bat burutuko da azken 45 minutuetan zehar. Saioaren amaieran, irakasleak galdetegiak jasoko ditu.

GALDETEGIA:

- Deskribatu bi iragarkietan emakume biek aurkezten dituzten itxura zein jarrerak.
- Alderatu bi iragarkiak, amankomunean eta aldi berean kontrakoak dituzten aspektuak zerrendatuz.
- Zuen ustez, zein da iragarki hauen bitartez gizarteari eta bereziki emakumeari helarazi nahi zaion mezua? Zer dute amankomunean haien artean?
- Zenbateraino da agerikoa frankismo garaitik gaur egunera emakumeak gizarte mailan lortu duen gizonarekiko berdintasuna?
- Zer nolako eragina izaten jarraitzen du erregimen frankistak finkaturiko emakume ereduak egun inposatzen denarekiko?

7 SAIOA: EMAKUMEENGANAKO BAZTERKERIA LANBIDEEN BAITAN

Jarduera honi bakarkako lan eta hausnarketa baten bidez emango zaio hasiera. Dinamika honen bitartez, gaur egungo gizarte egitura eta hau ezaugarritzen duten oinarri ideologikoak sakonki ezagutu eta kritikoki aztertzeke gaitasuna landuko da. Aldi berean, gaur egungo gure gizartea bere osotasunean ezagutu ahal izateko, iragana ikuspuntu anitzetatik aztertzea funtsezkoa dela ohartarazi nahi dira ikasleak, aurrekari historikoek haien egunerokotasuna zuzenean baldintzatzen dutela egiazta dezaten.

Lehen 15 minutuetan zehar, ikasle bakoitzak gaur egungo gizartearen oinarrietako bat diren gizon zein emakumeen eredu idealen haien inguruko presentzia mailaren eta orain arte haien pentsamenduarengan izan duen eraginaren inguruko hausnarketa burutu behar du. Horretarako, material osagarri gisa, hurrengo taula erabiliko da. Ezkerreko koloman, gaur egungo gizartea ezaugarritzen duten zenbait sektore ekonomikoren barneko ogibideak ageri dira zerrendaturik. Beraz, jarduera honen bitartez ikaslearengan orain arte helarazi den lanbidearen araberrako gizon eta

emakumeen arteko rol banaketaren inguruko ideiak izan duen eraginaren inguruko hausnarketa burutuko da. Esan bezala, lehenik bakarka burutuko den jarduera izango da eta ikasle bakoitzak zerrendatuta ageri diren lanbideetako bakoitza lehenengoz gizon edota emakume batekin erlazionatu ohi duen adierazi beharko du, lauki bakoitza x baten bitartez markatuz.

Norekin erlazionatu izan dituzu hurrengo lanbide hauek? Gizonekin edota emakumeekin?	Gizona	Emakumea
Suhiltzailea		
Ile apaintzailea		
Irakaskuntza		
Etxeetako garbiketa		
Eraikuntza		
Medikuntza		
Erizaintza		
Futbola/Saskibaloia/Hockey-a/Errugby-a		
Ballet-a/Dantzaria/Gimnasia erritmikoa		
Lorezaintza		
Polizia		
Sukaldaritza		
Filosofoa/Pentsalaria		
Historialaria		

Ikerlaria		
-----------	--	--

Hurrengo 15 minutuetan zehar, ikasleek talde txikiak osatuko dituzte haien artean, bakoitzak emandako erantzunak alderatu eta eztabaidatzeko. Behin erantzunak amankomunean ipinita, ikasgela osoaren arteko eztabaida orokor bat bideratuko du irakasleak, ondorengo galdera honen planteamendutik abiatuz:

- Zergatik uste duzue, esate baterako, medikuntzari loturiko ogibidearen inguruan pentsatzen dugunean, inkontzienteki bada ere, gizon batengan pentsatu ohi dugula lehenik? Ba al du erregimen frankistan helarazten zen gizon eta emakumeen inguruko eredu ideal, gizarte mailako zeregin eta betebeharrakiko loturarik?

8 SAIOA: EMAKUMEAK LAN MUNDUAN, AISIALDIA, ETA ETXEKO LANEN BANAKETA

Saio honetan ere, ikaslegoaren gaitasun emozionala zein gaur egungo gizartean erroturik jarraitzen duen emakumeen gizonekiko bereizkeriaren jatorriekiko kontzientzia garatzeko dinamika praktikan jartzeko, Ahotsak.com webgunean jasotzen diren ahozko testigantzak erabiliko dira material osagarri gisa. Bideo honetan, frankismoaren loraldia definitzen duten lehen urte gogorrenak bizi izan zituzten emakumeek, haien gizarte mailako garrantziaren deuseztapenaren berri ematen dute. Besteak beste, ezkondu ostean lan munduan jarraitzeko ezarri zitzaizkien oztopoak, etxerako lanen banaketa desorekatua eta aisialdi garaian ere uneoro erakutsi beharreko jarreraren inposaketa deskribatzen dira.

Saioaren lehen minutuetan zehar, bideoa ikusi ondoren, ikasleak 4 pertsonak 5 taldetan bilduko dira eta hurrengo galdetegia osatzeko saioaren hurrengo 30 minutuez baliatuko dira, amaieran irakasleak bilduko dituenak. Behin galderak erantzun eta gero, ikasgela osoaren arteko eztabaida baten bitartez erantzunak partekatu eta osatuko dira.

GALDETEGIA:

- Baliagarri ikusten al zuen orduko erregimenak emakume batek gizonen ikasketa maila bera jasotzea? Zergatik?
- Zein ondorio suposatzen zuen ezkontzak emakumeen lanpostuari begira?
- Zertan datza gizonen zein emakumeen ardurapeko lanen banaketa?
- Ondo ikusita al zegoen gizon batek emakume bati esleitutako jarduera bat burutzea?
- Zer nolako eragina zuen lan banaketa honek etxeko gizon zein anderearen ingunerokotasunean?
- Aisialdiari begira, zein aspekturi begira ezartzen da zorroztasuna emakumeen ohiturengan gizonekin alderatuz?
- Zuen ustez, erakusten al dute emakume hauek gizarte mailako zapalkuntzarekiko kontzientziarik? Zein modutan?
- Garaian zein testuinguruan kokatuz, zer sentituko zenukete zuek haien lekuan?

4 ATALA: GURE AITONA-AMONAK ETA FRANKISMOA

9 SAIOA: BAT AL DATOR ORAIN ARTE AZTERTUTAKOA GURE AITONA-AMONEN BIZIMODUAREKIN?

Aurreko saioetan, Ahotsak.eus web orriaz baliatuz, erregimen frankistaren inposaketak euren gizarte mailako paperaren zapalkuntza haien azaletan bizi izan zuten emakumeen testigantzak aztertu ostean, ikasleek, landutako galderen bitartez jasotako informazioaz baliatuz, haien aitona amonen eguneroko bizimoduarekin alderatuko dute. Horretarako, irakasleak, aurreko saioan zehar burututako galdetegiak itzuliko dizkie. Saio honen helburua, familia barneko eta beraz haiekiko hurbilagoak diren kasuak aztertuz, ikasleengan emakumeak 40 urtetan zehar bizi izan zuen gizonarekiko menpekotasun egoeraren inguruko kontzientzia zein jarrera enpatikoa garatzea litzateke.

Helburu didaktikoei begira, haien gertuko bizipenen berri jakinez eta haien lekuan jartzen saiatuz enpatia eta sentipenak egoki interpretatzeko gaitasuna garatzeaz gain, taldearekiko erantzukizunaren inguruko kontzientzia izatea litzateke. Aldi berean, gertuko bizipenak aztertuz, haien egungo errealitatearekin zuzenki

lotuta dagoenez, historiako irakasgaiak helarazten dituen ezagutzak modu praktiko batean barneratzeko helburua funtsezkoa da.

Saioak irauten duen ordu betean zehar, ikasleak 8. saioan zehar osatutako talde berdinetan bilduko dira eta ikasgelan aztertutako ahozko testigantzen bitartez bilduriko informazioaz baliatuz, galdetegi komun bat prestatuko dute. Ondoren, kide bakoitzak, bere aitona-amonei edo erregimen frankistaren ondorioak pairatu zituen hurbileko senide bati egingo die elkarrizketa. Galdera kopuruaren erabakitzea talde bakoitzaren araberakoa izango da. Horretaz gain, taldeko kide bakoitzak orrialde batean idatzi beharko ditu taldean erabakitzen diren galderak, ondoren bakarka elkarrizketa burutu ahal izateko. Posible balitz, taldeko kide batek egindako elkarrizketa grabatzeko aukera izango du, ikasgelan erakutsiz, jarrera enpatikoa, gertukotasuna zein jarrera enpatikoa garatzera begira.

10 SAIOA: ZEIN IRITZI DUTE HAI EK EGUNGO GIZARTE EGOERAREN INGURUAN?

Azken saio honetan, taldekide bakoitzak haien familian burututako elkarrizketaren bidez lortu dituen erantzunak ekarri beharko ditu ikasgelara. Lehen 20 minutuetan zehar, haien senideen aldetik jasotako erantzunak alderatuko dituzte taldekideen artean. Amaitzeko, talde bakoitzak gainerako ikaskideei aurreko saioan prestatu zuten galdetegiaren eta kide bakoitzak haien senideei eginiko elkarrizketan jasotako erantzunen arteko alderaketaren inguruko aurkezpen bat egin beharko diete, 7-8 minutu ingurukoa. Talde bakoitzeko kideren batek burututako elkarrizketa grabatzeko aukera balu, aurkezpenaren azken 2-3 minutuetan zehar erakutsi ahal izango luke.

Ariketa didaktiko honen bitartez garatu nahi diren gaitasun eta helburuei dagokienez, hein handi batean, ikaslengan jendaurrean hitz egiteko gaitasuna garatzea litzateke, hitzaldiak ideien zein gertakarien kausa eta ondorioen arteko elkarlotura egoki bat zein kontzeptu eta hiztegi teknikoaren erabilera egoki baten bitartez burutuz.

EBALUAZIOA

Irakaslearen ebaluazio errubrika:

	Bikain 9-10	Oso ongi 7-8	Ongi 6-7	Nahikoa 5-6	Hobetzeko 0-5
Taldeakako lanak eta jarrera	Taldearekiko erantzukizuna hartuz eta bakoitzaren ideia eta iritziak errespetatuz, era koordinatuan lan egin du.	Taldeari ekarpen esanguratsuak eskaini dizkio, orokorrean giro ona sortzen lagunduz.	Talde kideen iritzia eta partaidetza errespetatu ditu eta talde dinamikan integratzen saiatzen da.	Lan taldean, oinarrizko lana burutu du, baina inplikazio maila ez da oso handia.	Lan taldean, jarrera pasiboa erakutsi du uneoro, talde kideekiko erantzukizuna eta errespetua kontuan hartu gabe.
Informazio iturrien erabilera eta sailkapena	Baliabide teknologikoen bitartez, sarean eskuragarri dauden informazio iturrien kontsulta eta sailkapen egoki bat burutu du eta nabarmenki ezberdintzen ditu.	Informazio iturriak modu egokian ezberdintzen ditu haien balioaren arabera eta jarduerak burutzean, hauek lehenesten ditu.	Informazio iturri anitzak kontsultatzen ditu eta baliaren arabera sailkapen bat burutzen saiatzen da.	Informazio iturri ugari kontsultatu dituen arren, iturri hauen sailkapena eta alderaketa ez da sakona izan.	Internet-eko edozein informazio iturri edo orrialdez baliatzen da, ia kontsultarik egin gabe fidagarritasuna kontuan hartu eta alderaketarik egin gabe.
Ideen arteko elkar lotura	Gertakari historikoen kausa-ondorioak kontuan hartuz, ideien arteko elkar lotura zuzen eta argiak burutzen ditu.	Oinarrizkoak zein osagarriak diren ideiak adierazten ditu, uneoro ordena koherente bat jarraituz.	Zentuzkoak eta oinarrizkoak diren ideiak adierazten ditu, haien arteko lotura egokiak burutzen saiatuz.	Ideiek elkarrekiko lotura minimo bat duten arren, ez da hobetzen saiatzen.	Elkarren arteko erlaziorik ez duten ideiak botatzen ditu, justifikatzeko argudio sendorik erabili gabe.
Galdetegiak	Erantzunen sakontasun eta garapen maila oso altua da eta gaiaren inguruko hausnarketa ere eskaintzen du, justifikatzeko argudio guztiz sendo eta koherenteekin batera.	Bere erantzunak garapen eta hausnarketa maila altua eskaintzen dute, oro har argudio egoki eta koherenteekin osatuz.	Erantzunen garapen maila egokia da eta bere ideiak argudiatzen saiatzen da.	Erantzunen garapen maila eta argudiaketak urriak dira, sendotasun gutxikoak.	Bere erantzunen sakontasun, garapen eta argudiaketa maila oso baxua da.

Ikasleen autoebaluazioa

Ikasle bakoitzak, x baten bitartez markatuz, ondorengo baieztapenak 1-5 bitartean baieztatu beharko ditu, norberak bere burua ebaluatzerara begira.

	Guztiz ados	Ados	Hala nola	Ezados	Guztiz ezados
--	--------------------	-------------	------------------	---------------	----------------------

	5	4	3	2	1
Ikasgelan burutu diren jardueretan gogotsu parte hartu dut.					
Ikasgelan giro ona sortzen lagundu dut.					
Taldekieekin ardurak banatu eta erabakiak adosteko gai izan naiz.					
Gainerakoen parte hartzea zein proposamenak errespetatu ditut.					
Kontsultaturiko informazio iturriak egoki interpretatzen saiatu naiz.					
Ikaskideen aurrean ideiak elkar lotu eta egoki argudiatzeko gai izan naiz.					

Ikasleen unitate didaktikoarekiko ebaluazioa

Ikasle bakoitzak, x baten bitartez markatuz, ondorengo baieztapenak 1-5 bitartean baieztatu beharko ditu, edukiak barneratzeko landutako unitate didaktikoaren baliagarritasuna ebaluatzerara begira.

	Gutziz ados	Ados	Hala nola	Ezados	Gutziz ezados
	5	4	3	2	1
Jarduerak, aurrez finkaturiko helburuei erantzuten diete.					

Jarduerak gure maila akademikoara egokitzen dira.					
Edukiak lantzeko, gure aurre ezagutzez baliatu ahal izan gara.					
Taldekako lana bultzatu da.					
Edukiak ikuspuntu zein teoria anitzak aztertuz jorratzea lortu da.					
Iragan historikoa orainaldiarekin zein gure egunerokotasunarekin erlazionatu ahal izan dugu.					
Jarduerak era dinamikoan burutu dira.					

5. ONDORIOAK

Egungo gizarteak, besteak beste frankismoaren eraginez indarrean mantendutako sexuaren araberako gizartearen barneko rol banaketari, ondorioz emakumezkoari gaur egun ere esleitzen zaion bigarren mailako posizio zein gizonarekiko gutxiagotasunari eta hezkuntza arloan duen zuzeneko eragina sahiesteko prebentzio baliabideei loturik, hurrengo ondorio orokor hauen bitartez borobilduko da proiektua.

Aurreko ataletan zehar gailendu bezala, hezkuntza arloan frankismoaren inposaketaren kausa litzatekeen gerra zibilari zein erregimenaren loraldia deskribatzen duen XX. mendearen erdialdea jorratzen dituzten edukiak lantzen direnean, gertakarien ikuspuntu politikotik abiatutako azterketa orokor bat burutzera jo ohi da. Hortaz, espainiar estatua ideologia errepublikar eta nazionalistak erdibitzen zuen, azken hauen garaipenak erregimen frankistaren behin betiko finkapena ahalbidetuz. Aldi berean, frankismoaren hastapenak errepublikarren aurkako jazarpen politikarenarekin bat egin zuen, biolentzia fisiko, politiko edota kulturalen oinarritua.

Ikuspuntu sozial batetik aztertuz ordea, ideologia politikotik at, emakume nazionalista zein errepublikarrek pairatu zituzten erregimenaren behin betiko inposaketa eta honek sortu eta gizarte mailan helarazitako espainiar emakume idealak Estatuari eta bereziki gizonezkoari begira aditzera eman beharreko itxura, jarrera zein ohituren finkapenaren ondorioak.

Alde batetik, egia litzateke beharbada errepublikarren senide ziren nahiz nazionalisten aurkako borrokan parte hartu zuten emakumeek falangistengandik jasan zuten errepresioa bortitzagoa izan zela, erregimenak inposatzen zituen balore berriak barnera zitzaten haietako asko atxilotuak izan baitziren (Jimenez, 2016, 237). Zentzu orokorrean ordea, aurrez gobernu errepublikarrak onartu zizkien zenbait eskubide erabat deuseztaturik geratu ziren. Esaterako, bozka eskubidearen edota dibortzioaren debekua lirateke aipagarrienetako batzuk, eguneroko bizitzari loturiko edozein erabaki independenteki hartzeko eta euren buruaren jabe izateko askatasunik eza bermatzen baitzituzten. Historikoki ordea, emakumeari loturiko kontzeptua ikusezina eta bigarren mailakoa izan da uneoro protagonista izan den gizonarekiko (García, 2017, 22).

Beraz, proiektu honen proposamenaren funtsezko helburuetako bat iragan historikoaren azterketa eta ondoriozko orainaldiarekiko alderaketa objektibo bat sortzeko ahalegina bultzatzea litzatekeela kontuan hartuz, populazioaren erdia osatu izan duten emakumezkoen egoerak jasandako eraldaketa bortitza ez eta haien azaletan bizitako esperientzia aintzakotzat hartzen ez dela azpimarratu behar da. Azken aspektu hau litzateke unitate didaktiko berritzailea osatzen duten zenbait jarduera ahozko iturrien azterketan oinarritu izana, ezkutatuak izan ohi diren frankismoaren ezarpenak suposatzen zituen ondorio sozial bortitzak emakumeen ahotsaren bitartez ezagutu eta ahozko ondarearen garrantziaren inguruko kontzientzia garatzeko.

Gaur egungo gizarteak frankismoarenganik oinordetzan jasotako eraginari erreferentzia eginez, orainaldia eta lehenaldia azaleko ikerketa baten bitartez soilik alderatuz, frankismoa urruneko iragan gisa hartu ohi da. Kasu honetan, gizon eta

emakumeen arteko gizarte mailako eskubide, betebeharrak zein onarpenaren inguruan, Espainia frankista erreferentzia gisa harturik, egungo gizartearen baitan erabateko berdintasuna lortu dela uste da. Hala ere, sexuaren arabera rol banaketa eta berezikeriak indarrean jarraitzen du. Adibide gisa, hein handi batean komunikabideen bitartez helarazten diren emakume eredu "ideala" deskribatuko luketen edertasun kanonen presentzia nabarmena aipa daiteke, batez ere gizonezkoen begira aditzera eman beharreko itxura azpimarratuz. Bestalde, lanpostu ugariaren baitako kontsiderazio maila desorekatua ere aipa daiteke, soldadari dagokiona batez ere. Horrez gain, populazioaren zati handi batek, etxe barneko jardueren kudeaketa eta banaketa emakumezkoen ardura kontsideratzen ditu oraindik ere. Hortaz, gizartearen baitako jardura eta eginbeharren bereizketa zein onarpen, kontsiderazio eta garrantziari dagokien bereizkeria frankismo garaiko gizarte egituraren bereizgarri nagusi liratekeela kontuan hartuz, argia litzateke gertuko iraganak gaur egungo gizartearen egitura eta haren baitan indarrean mantentzen diren ideologiak nabarmen baldintzatzen dituela.

Hezkuntza arloan murgilduz, emakumearen gizarte mailako garrantziaren eta genero berdintasunaren zapalkuntza sustatzen duten faktoreek agerikoak izaten jarraitzen dutela eta eskola ororen helburu nagusia ikasleagoa etorkizuneko gizarteratze prozesurantz egokitasunez bideratzea litzatekeela kontuan harturik, prebentzio zein kontzientziazio neurri gisa burutu da ekimen berritzaile honen proposamena. Gaur egungo gizarte egitura zein gure ingurunea bere osotasunean ezagutu eta hiritarrei begira aditzera ematen dituen akats, hutsune zein gabeziak identifikatu ahal izateko, ezinbestekoa litzateke haren jatorri litzatekeen gertuko iraganaren azterketa zein orainaldiarekiko alderaketa kritiko bat burutzea. Proiektu honen baitan aztergai litzatekeen edukiaren kasuan, gerra zibilaren amaiera eta frankismoaren hastapenaren ondorio politikoak lehenestetik at, egungo gizarteak oraindik ere deskribatzen duen gizonaren menpeko emakume idealaren irudiarengan, erregimen frankistaren oinarri zen ideologia politiko eta sozialak duen zuzeneko eragina azaleratzea litzateke helburua eta aldi berean ikasleengan kontzientziazioa sustatzea. Ikasleengan emakumezkoak gertuko iraganean bizi izandako eskubideen zapalkuntzan, errepublika garaian eskuratutako gizarte mailako onarpenaren deuseztapenean eta gizonarekiko menpekotasunean oinarrituriko jazarpenarekiko kontzientzia piztea funtsezkoa litzateke etorkizunean frankismoarengandik oinordetzan jasotako sexuaaren arabera rol-en banaketan oinarrituriko ideologiaren garapena ekiditeko neurriak hartzeko gai izatera begira.

6. BIBLIOGRAFIA

Eusko Jauriaritza, (2016). 236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum a zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena (HEZIBERRI).
www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_2_proyec/adjuntos/OH_curriculum_osa.pdf

LIBURUAK

Fusi J. P. (2000). *Franquismo, El juicio de la historia*. Madril: Ediciones Temas de Hoy, S.A.

Merino, A (2010). *Mujeres y educación durante el franquismo en imágenes*. Madril: Creaciones Vincent Gabrielle.

Moradillos, E. (2016). *Las caras de Franco. Una revisión histórica del caudillo y su régimen*. Madril: Siglo XXI de España Editores S.A.

Pereda, R. (2003). *Contra Franco 1968-1978*. Bartzelona: Editorial Planeta S.A.

Soto, J. (2009). *Los años 50*. Madril: La Esfera de los Libros S.L.

Suarez, L. (1997). *España, Franco y la Segunda Guerra Mundial. Desde 1939 hasta 1945*. Madril: Editorial ACTAS S.L.

ARTIKULUAK

Alonso, M. eta Furió, E. (2007). El papel de la mujer en la sociedad española. HAL archives ouverts. *Economía Aplicada-Grup d'investigació*, 1-44.
https://halshs.archives-ouvertes.fr/file/index/docid/133674/filename/El_papel_de_la_mujer_en_la_sociedad_espanola.pdf

Jimenez, F. (2016). Las rapadas. El franquismo contra la mujer. *Asparkia: investigación feminista*, 27, 235-238.
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5466575>

García, C. (2017). Sin protagonismo y enmudecidas. La mujer en el franquismo y su silencio en el arte. *Revista de estudios de las mujeres*, 5, 22-42.
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6855562>

- Garrido, M., eta Higuera, M. (2013). El papel de la mujer en el franquismo y en la democracia. Análisis comparativo entre épocas. *ReiDoCrea*, 2, 117-121. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5386396>
- Grana, I., eta Martín, F. (2016). *Las profesoras durante el franquismo: freno a la vanguardia intelectual de las mujeres*, 59-71. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5546261>
- Gómez, E. (2011). El tratamiento informativo de la violencia de género en el franquismo. El caso, los precedentes de la prensa actual. *Investigación y Género*, 784-807. <https://idus.us.es/xmlui/handle/11441/39477>
- Ramírez-Macias, G. (2014). El franquismo autárquico, la mujer y la educación física. *Social and Education History* 3 (1), 78-102. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4902140>
- Manrique, J. (2014). *Incidencia del ideal de mujer durante el franquismo en el ámbito de la familia y la actividad física*, 47-68. https://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/48132/1/Feminismos_23_03.pdf
- Ramos, M. (2017). La imagen de la mujer en la historieta del franquismo. *Historia Actual Online*, 43 (2), 159-168. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6339894>
- Solé, B. eta Díaz, B. (2014). "Era más la miseria que el miedo". *Mujeres y franquismo en el Gran Bilbao: represión y resistencias*. https://unexes-my.sharepoint.com/personal/emedina_unex_es/_layouts/15/onedrive.aspx?id=%2Fpersonal%2Femedina%5Funex%5Fes%2FDocuments%2FGESSA%2Fweb%20qessa%20actualizar%2FLibro%20Bel%C3%A9n%2DBeatr%C3%ADz%2Epdf&parent=%2Fpersonal%2Femedina%5Funex%5Fes%2FDocuments%2FGESSA%2Fweb%20qessa%20actualizar&cid=5e4dcecc-afc2-4fd7-8610-208c62695fc6v

UNITATE DIDAKTIKORAKO MATERIALA

ARTIKULUAK

Barandiaran, A. (2018). Las mujeres ocupan un 67% de los empleos que están peor pagados en el País Vasco. El Diario Vasco. <https://www.diariovasco.com/economia/mujeres-ocupan-empleos-20180212004147-ntvo.html>

Primo de Rivera, P. (1953). Guía de la buena esposa. <https://drive.google.com/file/d/0B1aGxtRQVONGdGtwRk9rMkZYkK/view>

BIDEOAK

Ahotsak, Frankismoa. Emakumea eta aisia. <https://www.youtube.com/watch?v=0ZXXAZWYZn4>

Ahotsak, Frankismoa. Emakumearen egoera lehen. <https://www.youtube.com/watch?v=X4d2W1AlmMs>.

Ahotsak, Frankismoa. Etxeko lanen banaketa. <https://www.youtube.com/watch?v=QarwwWhCdzk&t=283s>

Ahotsak, Frankismoa. Emakumea eta janzkera. https://www.youtube.com/watch?v=NzVjEP_D_NI

El "clamor" feminista inunda toda España. <https://www.youtube.com/watch?v=yivh67T3OFo>


La mujer en el franquismo. <https://www.youtube.com/watch?v=K9ktzmRLNKU>

Mujer y educación en España. <https://www.youtube.com/watch?v=4CNptwOn6rA>

7. ERANSKINAK

1. IRUDIEN ANALISIA:

1. Irudia



2. Irudia



LECTURA

Todos tenemos una familia.
La familia está formada por los padres, los hijos
y los abuelos, principalmente.
El jefe de la familia es el padre.
Debemos amar mucho a todos los de nuestra
familia y ser muy obedientes y respetuosos para
con nuestros padres y abuelitos.

2. TESTULIBURU ETA TESTUINGURUAREN ARTEKO ERLAZIOA

